

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Agintariak eta langileak eramateko lau automobil elektriko eta hiru hibrido erosi dira

Nafarroako Energia Planak Nafarroako Gobernuaren flotaren erdia berritzea eta 2030rako elektriko bihurtzea aurreikusten du

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 29

Nafarroako Gobernuak agintariak eta langileak eramateko lau auto elektriko eta hiru hibrido erosi ditu, energia-kontsumoa murriztu eta Nafarroako 2030 Energia Planaren helburuaren bilaketan aurrerapausoak emateko. Aurtengo helburua Nafarroako Administrazioaren flota erdia berritzea eta ibilgailu elektriko bihurtzea da.



Ibilgailuen flota berria.

Nafarroako Barne Zuzendaritza Nagusiaren Parke Mugikorrako sailak 41 ibilgailu kudeatzen ditu: bi furgoneta eta 39 turismo, horietatik 8 elektriko eta 3 hibrido. Ibilgailu guztien % 25, beraz, ibilgailu eraginkorrak dira (% 18 elektrikoak eta % 7 hibridoak), Planak 2019rako zehaztutakoa baino % 16 gehiago.

Zehazki, automobil hauek erosi dira: Renault Zoe Life 40 R90 modeloko lau turismo elektriko, 92.870 €-ko kostuarekin (BEZ barne), eta motor elektriko eta gasolina konbinatzen dituzten Ford Mondeo Titanium Híbrido modeloko hiru turismo, 76.859,20 euroko kostuarekin (zergak barne). Tamaina handiagoko berlinak dira, eta, nagusiki, agintariak eramateko erabiliko dira.

Sailak 16 turismo erosi ditu azken bi urteotan, eta, horrela, ibilgailuen antzintasunari nahiz kilometro kopuruari dagokionean, ia erdiraino murriztu dituenak, flota modernizatzea lortu du.